



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea

Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



Osalanen 2011ko Jarduera Memoria

2011–2014ko
Laneko Segurtasun
eta Osasunaren
Euskal Estrategiaren
Hedapena



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



AURKIBIDEA

ZUZENDARIAREN GUTUNA	3
1. SARRERA	4
2. KUDEAKETA PLANAREN ESPARRU BARRUAN BURUTUTAKO EKINTZAK	6
2.1. KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA – (A.1)	6
2.2. HIRITARREN PARTE-HARTZEA – (A.2).....	7
2.3. PRESTAKUNTZA DIBULGATZAILEA – (A3).....	8
2.4. LSO-AN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA – (A4).....	9
2.5. ERAKUNDEEN KONPROMISOA – (A5).....	11
2.6. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA – (A6)	11
2.7. IKUSKAPENA ETA KONTROLA – (A7).....	13
2.8. ENPRESEI (ETE-EI) LAGUNTZEA – (A8).....	14
2.9. LAN BALDINTZAK – (A9).....	16
2.10. LEHEN SEKTOREA – (A.10).....	17
2.11. LAP KUDEAKETAN INTEGRATZEA – (A.11)	19
2.12. BERARIAZKO PRESTAKUNTZA – (A.12).....	20
2.13. OSASUNAREN ZAINZTA – (A.13)	24
2.14. LAP ARLOKO EKINTZEN KALITATEA – (A.14).....	26
2.15. IKERKETA – (A.15)	28
2.16. INFORMAZIO SISTEMAK – (A.16).....	30
2.17. PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA – (A.17).....	32
2.18. OSALANEN ERAKUNDE JARDUNA – (A.18)	34
3. BALIABIDEAK	36
3.1. BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	36
3.2. GIZA BALIABIDEAK	36
4. 2011 KP-AREN GARAPENARI BURUZKO BALORAZIO OROKORRA	388
ERANSKINA: EAE-KO EZBEHAR TASARI BURUZKO DATUAK	39



ZUZENDARIAREN GUTUNA

Atseginez natorkizue berriz ere OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Urteko Memoria aurkeztera, bertan EAEn 2011. urtean zehar eta Laneko Arriskuen Prebentzioarekin zerikusia duten esparru ezberdinetan egindako jarduketak jaso direlarik.

Krisialdi ekonomikoaren egoerak eta Estatuko Administrazioak Eusko Jaurlaritzari Enplegu arloan egindako transferentziaren ondoriozko aldaketek sortutako eszenatoki bereziki zailean Osalanek egindako lan handia nabarmendu nahi dut.

Gure jarduna, 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategiaren barruan 2011rako diseinatu genuen Kudeaketa Planera mugatu da eta bertan ezarri ziren balioen arabera helburuak izan ditu:

- ✚ Laneko Arriskuen Arloan egiteko garrantzitsua duten eragileen eta arloko profesional eta espezialisten inplikazioa eta parte-hartzea bilatu da, partekatutako helburuak lortzeko ahaleginak bateratze aldera.
- ✚ Euskal Autonomia Erkidegoak Laneko Segurtasun eta Osasunaren esparruan dituen arazo zehatzak ekintza berezien bitartez ebazteari garrantzi berezia eman zaio, ekintza horiek kalitate, eraginkortasun eta Administrazioako baliabideak ahal den gehien aprobetxatzeko printzipioen arabera diseinatuta daudela.
- ✚ Inguruneko aldaketen aurrean malgutasunez jokatu da, lanaren antolaketa dinamiko baten bitartez eta etengabeko jarraipen- eta ebaluazio-sistemeekin.
- ✚ Osalanek antolatutako dibulgaziozko jazoera zientifiko ugari antolatu dira, horietara jende ugari bertaratu eta bertaratu direnak interes handiz jarraitu dituztelarik.
- ✚ Ikerketa bultzatu da, laneko arriskuen prebentzioaren esparruan oinarrizkoa delako eta esparru horren inguruan jakintza sortzeko sustatu behar baita.

Erakundearen jarduna laburtzen duen Memoria aurkezteko sarrerako lerro labur hauek baliatu nahi ditut, halaber, Osalaneko langileei egindako ahalegin eta eskaintako dedikazioa eta gurekin elkarlanean aritu diren pertsona eta Erakunde guztien inplikazioa eskertzeko.

Pilar Collantes Ibáñez
Osalaneko zuzendari nagusia



1. SARRERA

Osalanen jardunak 2011. urtean zehar, funtsean, ekitaldi horretarako diseinatutako Kudeaketa Planari erantzun dio, eta poliki-poliki egokitu da jarduketaren garapenaren eta emaitzen eta eszenatoki-aldaketaren arabera.

Kudeaketa Plan horrek hasiera eman zion 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategiaren hedapenari eta, beraz, bertatik balioak, helburuak eta jarduketa-ildoak jaso zituen, hots:

- JI.1.- Kontzientziazioa eta Sentsibilizazioa
- JI.2.- Laneko Segurtasun eta Osasunean (LSO) inplikaturako eragileen parte-hartzea eta horien arteko lankidetzak
- JI.3.- Erakundearen konpromisoa eta lankidetzak.
- JI.4.- Ikuskeraketa, kontrolak eta aholkularitza.
- JI.5.- Laneko Arriskuen Prebentzioa (LAP), enpresak eta lan-baldintzak hobetzeko.
- JI.6.- LAP kudeaketan integrazioa enpresaren bikaintasuna sustatzeko.
- JI.7 – Berriak prestakuntza.
- JI.8 – Osasunaren zaintza.
- JI.9.- LAP arloko jarduketaren kalitatea.
- JI.10.- Jakintza sortzea.
- JI.11 – Informazio-sistemak.
- JI.12 – Pertsonen garapen pertsonal eta profesionala.

12 ildoetako bakoitzean (azken biak zeharkakoak, gainerakoak garatzeko beharrezkoak), asmo zehatzagoak eskuratuz lortu behar diren helburu orokor batzuk ezartzen dira, eta asmo horiek, aldi berean, horretarako apropos diseinatutako ekintzak garatuz lortu behar dira. Helburu horiek izan dira Osalanen jarduna zuzendu dutenak eta 2011rako Kudeaketa Plana osatzen zuten lan-arlo ezberdinen helburu zehatzak ezartzeko balio izan dutenak.

Ondorengoak dira Osalanek landutako arloak, guztiak ere Estrategiaren jarduketa-ildoetan barne hartutakoak:



OSALANEN LAN ARLOAK	LSOEE-AREN ILDOAK
A.1.- Kontzientziazioa eta Sentsibilizazioa	JI.1.- Kontzientziazioa eta Sentsibilizazioa
A.2. Hiritarren parte-hartzea	
A.3. Prestakuntza dibulgatzailea	
A.4. LSOan inplikaturako Eragileen arteko lankidetzak	JI.2.- LSOan inplikaturako eragileen arteko lankidetzak.
A.5. Erakundeen konpromisoa.	JI.3.- Erakundeen konpromisoa eta lankidetzak.
A.6. Administrazioen arteko koordinazioa.	
A.7. Ikuskapena eta kontrola.	JI.4.- Ikuskapena, kontrola eta aholkularitza.
A.8. Enpresei (ETEak) laguntzea.	
A.9. Lan-baldintzak	JI.5. LAP enpresak eta lan-baldintzak hobetzeko.
A.10. Lehen sektorea.	
A.11. LAP kudeaketan integratzea.	JI.6.- LAP kudeaketan integratzea enpresaren bikaintasuna sustatzeko.
A.12. Berriazko prestakuntza.	JI.7 – Berriazko prestakuntza.
A.13. Osasunaren zaintza.	JI.8 – Osasunaren zaintza.
A.14. LAP arloko jarduketan kalitatea.	JI.9.- LAP arloko jarduketan kalitatea.
A.15. Ikerketa.	JI.10.- Jakintza sortzea.
A.16. Informazio-sistemak.	JI.11 – Informazio-sistemak.
A.17. Pertsonen garapen pertsonal eta profesionala.	JI.12.- Pertsonen garapen pertsonal eta profesionala.
A.18. Erakundeen jarduna.	Osalan Sortzeko Legea esleitzen dizkion eginkizunak betetzeko jarduna.

2011ko Kudeaketa Planean garatutako ekintzak aipatu arlotan barne hartuta daude eta, funtsean, helburua, irismena, egitekoak, egutegia eta jarraipen-mekanismoak definitzen zituzten fitxa deskribatzaileen arabera egin dira.

Ekintzen gauzatzeko-maila, lortutako emaitzak eta etorkizuna begira dauden aukerak hurrengo kapituluan azaltzen dira.



2. 2011KO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRU BARRUAN EGINDAKO EKINTZAK

Jarraian, Osalanek 2011ko Kudeaketa Plana (2011ko KP) osatzen zuten lan-arlo ezberdinetan egindako jarduketak eta horiek 2011-2014ko LSOEEaren garapenarekin duten lotura deskribatzen dira.

J1.1.- KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Estrategian euskal Gizartearen artean prebentzio-kultura sortu eta sendotzeko ezarritako helburu nagusia xede berezietan banatuta zegoen, eta horiek, A.1, A.2 eta A.3 lan-arloetan diseinatutako ekintzekin lortu nahi izan direnak dira.

2.1. KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA – (A.1)

Arlo honen helburua zen euskal Gizarteko kolektibo ezberdinei LSOaren inguruan beraientzat interesik edo eraginik handiena izan zitzaketen alderdiei buruzko informazioa ematea, ahalik eta pertsona gehienengana heltzen saiatuz eta horretarako bitartekorik egokiena bilatuz. Horretarako:

- Ahalegin handi egin da, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin koordinatuta, LSOaren inguruko gaiak eta antolatutako jazoera dibulgatzaileak masen hedabideetan, hots, idatzizko prentsan, irratian eta telebistan, azaltzeko.

Osalan etengabe agertu da hedabideetan, hain zuzen ere:

- 26 aldiz azaldu da egunkarietan eta idatzizko prentsan, batzuetan bi orritan.
- Irratiko 10 elkarrizketa eta 3 irratsaio, zuzenean Osalanen jazoera ezberdinetatik.
- Telebista: LAPeko gaiei buruzko saio dibulgatzaileetan azaldu da: Eitb eta tokiko telebistetan.

Lan-ildo hau finkatzeko, Prentsako teknikariaren lanpostua sortu da Osalanen, eta 2012ko lehen hilabeteetan garatutako lanarekin jarraitzea ahalbidetuko du horrek.

- Hedapen-ekintzak egin eta dibulgaziozko dokumentazioa banatu da euskarri ezberdinetan eta bide ezberdinetatik:

- LSOEE eta Osalanen 2011ko KP LAPari buruzko ekitaldi eta jazoeretan aurkeztu, dokumentuak CDn banatu eta web bidez hedatu da.
- Estatuko LOZein lotutako 5 jazoera dibulgatzaileetan, nazioarteko 6 jazoera edo biltzarretan eta toki- eta autonomia-mailako 11 jazoeratan esku hartu du Osalanek.

- LAPean bereziki inplikaturako kolektiboek, hala nola, enpresaburuei, lan-sustatzaileei eta langileei, zuzenean, eta beren kudeaketan laguntzen dieten eragileei, zuzendutako ekintza dibulgatzaileak burutu dira.

- Prebentzioko Ordezkararen irudia sustatzeko informazio-triptikoa egin da, eta 2012. urtean zehar banatuko da Ikasgela Ibiltariaren bitartez.



- Enpresaburuen arteko topaketak antolatu dira LSOko gaien inguruan, eta tartean:
 - o ADEGIren LAP arloko III. Foroa, enpresa-jardueren Koordinazioari, amiantoari eta LAP lehiakortasuneko faktore gisari buruzko 3 saio.
 - o AVEQ-KIMIKA enpresak agente kimikoei buruz antolatutako jardunaldia.
- Gipuzkoa eta Arabako Finka Administrazioarekin Elkargoarekin harremanetan jarri eta horren bitartez informazio dibulgatzailea bidali zaio elkargokideen artean banatzeko.
- EAEko Lurralde osoan zehar dabilen **Ikasgela Ibiltaria** jarri da martxan, eta LAP lantokietara hurbildu eta arloko azoka eta jazoeretan egon da.

2011ko azaroaren 1ean ekin zion lanari Ikasgelak, eta abenduaren amaierara arte 51 enpresetan egon zen, guztira 784 langileri informazioa emanaz.

Halaber, abenduaren 23tik 2012ko urtarrilaren 4era, Gabonetako Haur Parkea zela-eta, 4 eta 14 urteko haurrei zuzendutako LSOari buruzko kanpaina egin da, eta horretan 800 pertsonak esku hartu du.

Ikasgelak 2012ko uztailearen hasierara arte jarraituko du jardunean, 79 industrialde (36 Bizkaian, 32 Gipuzkoan eta 11 Araban) barne hatzen dituen programa batekin.

- LAParen prestakuntza eta dibulgaziorako diru-laguntzak banatu dira zuzendari, agente eta langileen artean, 22 erakundetako 68 ekintza finantzatuz (... zk.ko EHAA).

2.2. HIRITARREN PARTE-HARTZEA – (A.2)

Lan-arlo honen helburua da hiritarrak Administrazioak LSO alorrean abiarazitako ekimenetan esku hartzera bultzatzea. Horretarako, bi ekimen abiarazi dira:

- Gizarte-sareen aukerak ustiatu, OSALANen eta hiritarren arteko komunikazioa eta elkarrenergina bideratzeko.

- Lehen urrats gisa, web Gestorearen profila bereganatu du OSALANek lan-ildo hau garatzeko.

- IREKIArekin bilera egin da OSALANek gizarte-sareetan duen presentzia aztertzeko.

2012. urtean zehar Osalanen presentzia gizarte-sareetan finkatu nahi da, horren eragina eta dakartzan onurak eta kudeaketa-beharrak baloratuz. Ildo horretatik, Erakundeko bizpahiru pertsonak arlo horretako prestakuntza jasotzea aurreikusitako da.

- ADI proiektuan Siderurgia Integraleko langileen Fundazioarekin eta MUTUALIArekin elkarlanean aritu da, boluntarioen (seniorrak) jardunaren bitartez, Lanbide Heziketako zikloetako ikasleen artean prebentzio-kultura garatzeko.

Proiektu honetan, oraingoz, plan pilotua garatzen ari da LHko 6 ikastetxetan 3 boluntario eta 12 ikasle-talderekin (139 gazte). Osalanek aholkulari gisa esku hartzen, eta bereziki boluntarioen esku-hartzeetan laguntzeko materialak prestatzen laguntzen du.

2.3. PRESTAKUNTZA DIBULGATZAILEA - (A3)

Arlo honen helburuek LAPeko oinarrizko prestakuntza eskaintzea dute xede, prestakuntza hori, ondoren, kolektibo bakoitzaren beharren arabera osatu beharko delarik. Horren inguruan, honako hauek izan dira burututako ekintzak:

- Laneko Arriskuen Prebentzioaren inguruko prestakuntza Haur Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin elkarlanean



abiarazitako jarduketekin jarraitu da.

- Haur Hezkuntzan 2010. urtean zehar garatutako edukiak berrikusi eta curriculumaren egungo diseinuetara egokitu da, hala Haur Hezkuntzan, nola Bigarrenean. Hezkuntza Sailak bideratu ditu edukik horiek irakasleen esku hartzeko.
- Osalanen Lanbide Heziketaren arloak eraginkortasunez lan egin du IVAC eta Lea Artibairekin, azken horren ikastetxean eta LHko ikasleak hartzen dituzten hainbat enpresatan proiektua pilotua garatuz.

- Unibertsitate-mailako LAP prestakuntzari ekin zaio, EHUko Uda Ikastaroen barruan Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Ikastaroa antolatuta.

Ekainaren 20tik 22ra bitartean garatu zen Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Ikastaroa Donostian, oso balorazio positiboarekin. Hartara, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Izandako inpaktu handia, hedabideetan erruz nabarmendu baitzen.
- Gai berritzaileak, LSOaren esparruan asko tratatu ez diren arazoei ekin baitzitzaien.
- Nazioartean izen handia duten mailarik goreneko irakasleak.
- EHUren txostenaren arabera, ebaluatutako arlo guztietan ikastaroaren kalitatearen inguruan jasotako puntuazio onak.

Ondorio gisa, itxaropen guztiak gainditu eta arrakastatsua izan dela esan daiteke, eta horrek hurrengo urtean antzeko esperientzia errepikatzen bultzatzen gaitu.



Jl.2.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN PARTE-HARTZEA ETA HORIEN ARTEKO LANKIDETZA

Estrategian ezarritako helburu nagusia LAPean inplikaturako eragileen arteko lankidetzaren bermatzea da, horretarako lankidetzaren eta partaidetzaren mekanismo egonkor ezarriz. Osalanek helburu horren inguruan lan egin du, eta gizarte-eragileen, LAPean espezializatutako Erakundearen eta Administrazioaren arteko lankidetzaren oinarrituz eta A.4. lan-eremuan barne hartutako ondorengo ekintzak garatuz.

2.4. LSOEAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA – (A4)

- LAPean espezializatutako Erakundearen inplikazioa bilatu da, horiekiko lankidetzaren sistematizazioa. Horretarako, gai bereziak jorratzeko lantalde egonkorak eratu dira .

2 lantalde eratu dira, bat kanpoko Prebentzio Zerbitzuekin eta bestea Etxeko eta Elkartutakoekin. Helburua eta litezkeen lankidetzaren arloak zehazteko hasierako bilera batzuetatik abiatuta, gai bereziak lantzeko taldeak ostu dira:

- Arrisku Psikosozialak.
- 306/1999 Dekretuaren aldaketa.
- Historia mediko-laborala.
- Datuen gutxienezko multzoa.
- Gaixotasun Profesionalen susmoa.
- Arrisku kimikoak ebaluatzeko metodoak.
- Osalanek antolatzen dituen kanpainetan esku hartzea.

2012rako aurreikuspena lantaldeak finkatzen eta horretan sortzen diren proposamenak garatzen jarraitzea da.

- OSALANen Kontseilu Nagusiko Batzorde Delegatuak sustatzen jarraitu da, 2011-2014ko LSOEEn barne hartutako jarduketak garatu eta jarraitzeko bilera bultzatuz.

- Prestakuntzaren Batzorde Delegatuaren bi bilera egin dira, eta horietan, besteak beste, prebentzioko ordezkarien prestakuntza-ekintzen berri eman eta gizarte-elkarrizketaren Mahaiak adostutako prebentzioko ordezkariak birziklatzeko programaren zirriborroa egin da.
- Gaixotasun Profesionalen Batzordearen 2 bilera egin dira, eta horietan Susmoa, Lanaren ondoko Osasun Zaintzaren Erregistroa, etab. joratu dira.

- Negoziazio kolektiboan LAPari ematen zaion tratamendua aztertzeko Lan Harremanen Kontseiluarekin hasitako lankidetzaren proiektua garatu da.

Osalanen eta LHKren arteko lankidetzaren gauzatu da lehen lana baterako eta, 2011n sinatutako Hitzarmen Kolektiboetan LAP nola tratatzen den aztertuko da.

Erakunde baten artean aztertuko dute elkarrekin Osalanek balioztatutako itemen arabera LHKek egin duen azterketa horren emaitza 2012ko lehen hilabeteetan, ondoren garatu beharreko ekintzak ezartzeko.



- 2010. urtean zehar garatutako LOTU programa ebaluatu eta txostena egitea.

2010. urtean, altueratiko ererikoak prebenitzeko LOTU programa abiarazi zen, Gizarte Elkarrizketaren Mahaian sortu eta Eusko Jaurlaritzak, Confedebaskek, CCOO eta UGTk bultzatutako proposamen baten ondorioz.

Faseka garatu da programa, lan-istripu gehien eta larrienak sortzen dituzten arrisku zehatzei arreta berezia eskainiz.

- 1. fasean eskalera desegokien arriskua aztertu da. 1.063 hartzaileri (enpresa eta erakundeak) bidali zaizkie edukiak, 30.278 langileri eraginez.
- Baoen arriskua jorratu da 2. fasean. 1.102 hartzaileri (enpresa eta erakundeak) bidali zaizkie edukiak, 31.049 langileri eraginez.
- Aldamioen arriskuari ekin zaio 3. fasean. 1.118 hartzaileri (enpresa eta erakundeak) bidali zaizkie edukiak, 31.100 langileri eraginez.

EAEko eraikuntza-sektorea ordezkatzeko duten 13 enpresez osatutako talde txiki batek programako entsegu- eta trakzio-taldea osatzen du, tokian bertan ebaluatu eta diagnostikatzeko konpromisoa hartuz. Ebaluazio horren inguruan txosten orokor bat egin da Gizarte Elkarrizketaren Mahairako.

Hasierako testetik 18 ekintza ondorioztatu dira: 64 ekintza zuzentzaile esparru arau-emailea betetzeko eta 116 ekintza prebentzio-ekintzaren eraginkortasuna hobetzeko.

- Gizarte Elkarrizketaren Mahaia.

- Laneko istripuen biktimen gida.
- Prebentzioko Ordezkariak prestatu eta birziklatzeko akordioa.
- "Kanpoko prebentzio-zerbitzuekin hitzartzeko gida" egiteko proposamena.



JI.3 - ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA LANKIDETZA

LSOEEaren jarduketa-ildo honek Herri Administrazioen portaeran jartzen du arreta guztia bi zentzutan: batetik, LAParekiko konpromisoa bilatzea eta, bestetik, horien artean lankidetzaren sistematikoa eta egonkorra sustatzea. Helburu horiek lortzeko, bi lan-arlotan garatu ditu OSALANek ekintzak: A.5 eta A.6an.

2.5. A5.- ERAKUNDEEN KONPROMISOA – (A5)

Lan Arlo honetan ez dira lorpen handiak eskuratu, hainbat arrazoirengatik:

- 337/2010 ED berriak, bereziki toki-korporazioei elkartzeko aukeraren inguruan eragiten dieten prebentzio-antolaketaen kontzeptu berriak txertatu ditu.

- Legeen garapenaren inguruko esparruan aurrera egin da, ekimenen batek arrakastarik ez izan arren.
- Urte hasieratik, EAEn Prebentzio Zerbitzuen osasun-ekintzak arautzen dituen 306/1999 Dekretua aldatzeko proposamena aztertu da, baina ekainera arte, “Prebentzio Zerbitzuen osasun-jarduera gatzeko baliabideen antolaketari buruzko oinarritzko irizpideak ezartzen dituen 843/2011 ED argitaratu arte, ez da proposamen zehatza egin ahal izateko landu beharreko testurik eduki”.

Une horretatik aurrera, 843/2011 EDk 306 Dekretuan izango duen eraginaren azterketa juridikoa burutu, etxeko Prebentzio Zerbitzuen, Kanpoko Prebentzio Zerbitzuen Elkarteetan eta Zientzia Elkarteetan iritziak jasotzeko bilerak egin eta aldatutako Dekretuaren zirriborroaren inguruan lan egin zen. Zirriborro hori amaituta dago eta gutxi barru Osasun eta Kontsumo Sailari proposatuko zaio.

2.6. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA – (A6)

Lan-arlo honen helburuek, Osalane eta horren jarduketetan inplikaziorik zuzenena duten Administrazioetako Erakunde arteko harremana estutu eta komunikazioa arintzea dute xede. Erakunde horien artean Osasun Sailburuordetza, Lan Agintaritza eta Laneko eta Gizarte Seguratasuneko Ikuskatzailatza daude. Honako jarduketa hauek garatu dira:

- Alde biko Batzorde egonkorra eratu da Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Osalane artean, aldizkako bilerak eginez.

Batzordean, Osalane eta Sailak elkarrekin zein ekintzetan jardun behar duten aztertu da Batzordean, eta baita horien jarraipena egiteko modua ere: 306 Dekretuaren aldaketa, GPen Susmoa jakinaraztea, Osasun Plana, etab.

- Jorratutako arazoetako bat Gaixotasun Profesionalek osasun publikoan duten eragina izanda.

Maiatzean egin zen Jardunaldi teknikoan Osalane gai horren inguruan egindako azterlana aurkeztu zen, hots, “Lanari egotzi ahal zaion gaixotasunaren zama eta bere osasun-gastua Euskadin”. Azterlan hori Osasun Sailari eman zitzaion, GPen susmoa erakusten duten kasuak sustatzeko proposamenarekin, ezkutuko GPak azalerrate aldera.

- Aldizkako bilerak Lan Ikuskaritzarekin eta Lan Agintaritzarekin jarduketak koordinatzeko.



Lan Agintaritzaren, Lan Ikuskaritzaren eta Osalanen arteko Koordinazio Organoa eratu eta 4 bilera egin dira 2011n zehar, eta emaitza nagusiak kanpainetako koordinazioa eta komunikazioaren hobekuntza izan dira.

2012an koordinazio horri eutsi eta handitu egin behar da Eusko Jaurlaritzako Lan Ikuskaritzarekin.

- Europako Erakundeekiko lankidetzak, ikerketa-programetan eta bestelako ekimenetan esku hartzeko eta ezagutzeko.
 - Prato probintziarekin (Italia) elkarlanean aritzeko borondatezko Protokoloa sinatu da, ETEei buruzko prestakuntza- eta ikerketa-ekintzak garatzeko.
 - PESI – Europa maila industria-segurtasunaren alorreko ikerketa, garapen teknologiko eta berrikuntzako proiektuen garapenerako Espainiako Plataforma Teknologiarekiko atxikimendua.

Elkarrekin egindako jarduketak ugarik agerian uzten dute Osalanen eta Erakunde eta Administrazio Publikoen arteko lankidetzak, adibidez, LSHINekin (2 Gida Tekniko argitaratu eta hedapen-jardunaldiak antolatu dira), beste Autonomia Erkidego batzuetako LSOko Erakundeekin (CANO proiektua arrantza-sektorean). Gainera, Osalanek Erakunde horiek antolatutako prestakuntza- eta hedapen-ekitaldietan esku hartu du.

GSINekiko lankidetzak ere nabarmendu behar da, amiantoa lanean erabiltzearen ondoriozko patologia pairatzen dituzten langileen eta GPen susmoaren inguruko Hitzarmena sinatuko baita gutxi barru, eta berehala Hitzarmena sinatuko baita Gizarte Segurantzako Antolaketa Zuzendaritza Nagusiarekin, Gaixotasun Profesionalei buruzko datuak (CEPROSS) ezagutu ahal izateko.



JI.4.- IKUSKAPENA, KONTROLA ETA AHOLKULARITZA

Estrategiaren jarduketa-ildo honek EAEko enpresak ditu, bi zentzutan: batetik, horietan LAP arloko araudia betetzen den egiaztatzea eta, bestetik, araudi hori aplikatzeko aholkularitza eta laguntza ematea eta beren prebentzio-jarduera hobetzea. Bi esparru garatu ditu arlo honetan OSALANek, eta horien baitan honako ekintza hauek burutu ditu:

2.7. IKUSKAPENA ETA KONTROLA – (A7)

Lan-arlo honetan Lan Agintaritzaren errekerimenduen menpe dago Osalanen jarduera, batik bat, horren eta Lan Ikuskaritzaren beso tekniko gisa jardunez. Hala ere, Prebentzio Zerbitzuen gainean osasun-agintariaren eskumena dagokio eta betetzen du Osalanen LOUK osasun-arloan.

Osalanen 2011rako Kudeaketa Plana diseinatu eta onartu zen unean, gainera, Osalani atxikitako Euskadiko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Ikuskaritza jardunean zegoen, eta horrek Herri Administrazioen esparruan garatu du bere jarduna.

Testuinguru horretan, honako hauek izan dira garatutako ekintzak:

- Amiantoaren duten materialak eramateko Lan Planen kontrola egitea.
 - Amiantoaren kentzeko Lan Planen gaineko 445 errekerimendu artatu dira: 129 Araban, 131 Bizkaian eta 185 Gipuzkoan.
 - Guztira, 331 Lan Plan aurkeztu dira: 51 Araban, 102 Bizkaian eta 178 Gipuzkoan, eta Osalanen guztien inguruko txostena egin du. Ondorioz, 300 onartu eta 13 baztertu egin dira eta 5 noiz ebatziko zain daude. Gainera, 13tan uko egin dute
- Langileen Osasunaren Zaintza dagozkien arrisku berezien arabera delakoa dela, eta Prebentzio Zerbitzuek aplikatzen dituzten protokolo medikoetara egokitzen direla kontrolatzea.

Ekintza hori, enpresetan Prebentzio Zerbitzuen jardunaren kalitatea baloratzeko diseinatutako kanpaina barruan garatu da.

Osasun-arloan, Osasunaren Zaintzaren berezitasunari, historia mediko-laboralari, aplikatutako protokoloak eta abarrei buruzko hainbat alderdiren azterketa-zerrenda egin da, eta hiru lurraldeetako enpresa eta Gizarte Zerbitzuen multzo txiki batean azterketa pilotua egin da, ateratako emaitzetatik abiatuta 2012an egin beharreko jarduketan plangintza egiteko.
- Toki Administrazioetan (Udalak) LAP politikak zenbateraino ezarrita dauden egiaztatzea.
 - 2010.ean abiarazitako kanpainarekin jarraitu da, EAEko 251 udaletan jarduteko: 51 Araban, 112 Bizkaian eta 88 Gipuzkoan.
 - 2011n zehar bigarren bisita egin da aurreko urtean aztertutako 133 udaletara: 27 Araban, 35 Bizkaian eta 71 Gipuzkoan.
 - Honako hauek dira ondorio nagusiak:
 - Udalen hein handi-handi batek KPZ du prebentzio-modalitate gisa (bakarrik 4 dute EPZ edo APZ). %15ek ez du inolako prebentzio-antolaketa.



- Oro har, ez da Prebentzio Plana garatu eta AEak ez dira eguneratu (kanpainarekin kasuen %20 inguru zuzendu dira).
- Ez da Osasunaren Zaintza berezia egiten eta horien ordeaz azterketa mediko orokorrak egiten dira.
- 2011ko udal-hauteskundearen ondoren alkatetzak aldatu direnez, kanpaina moteldu egin da.

2.8. ENPRESEI (ETE-EI) LAGUNTZEA – (A8)

Honako hauek ziren Osalanek arlo honetan zituen helburuak: batetik, enpresek eta beren prebentzio-erakundeek LSO araudia betetzeko dituzten zailtasun nagusiak ezagutzea eta, bestetik, beren LAP jarduera hobetzeko aholkularitza eta laguntza ematea.

Horretarako, tresna nagusia EAEko hiru lurraldeetako jarduera-sektore eta -adar ezberdinetako ETEak bisitatzeko kanpainak dira. Horietan lan-baldintzak eta LAParen kudeaketa aztertu, gabeziak identifikatu eta aholkularitza eskaintzen da. Ondorengo hauek izan dira 2011n garatutako kanpainak:

- **Marmoldegiak: silize kristalinoaren eraginpean egon izana aztertzea.**

- 2009. urtean hasitako kanpainarekin jarraitu da -2010. urtean eten egin zen sektoreko enpresen jarduera ezagatik-, EAEko 38 enpresatako langileen silize kristalinoaren eraginpean egon izana baloratzeko helburuarekin: 4 Araban, 24 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan.
- 36 enpresatan neurketak egin dira: 6 Araban, 19 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan.

- **Galdetegiak: silikosiaren alertak eragindako kanpaina.**

- 2010ean hasitako kanpainarekin jarraitu da, silikosi kasuak izan diren EAEko Galdetegi guztiak bisitatzeko helburuarekin.
- Bisitak egin ondoren, txostena eta Lan Ikuskaritzari igorri zaio.

- **Aroztegiak**

- Kanpainaren helburua zen zura mekanizatzeko erabilitako makinen gabezia nagusiak hautematea, eta enpresa horien dauden ingurumen-arrisku batzuei buruzko oinarrizko informazioa lortzea.
- Kanpainak zuraren "bigarren eraldaketarekin" zerikusia duten 20 langiletik beherako enpresak barne hartzen zituen.
- Aukeratutako 383 aroztegietatik 325 bisitatu ziren: 81 Araban, 146 Bizkaian eta 98 Gipuzkoan. 58tan ezinezkoa izan zen egitea.

- **Eraikuntza-lanak.**

- Eraikuntza-sektoreko enpresei lan-baldintzak hobetzen eta LAP kudeatzen laguntzeko diseinatu zen kanpaina. Horretarako, Lantokiaren Irekierari buruzko Jakinarazpena egindako obrak guztiak, zein jarduketa horiek egiten ari zela jakindako obrak bisitatuko



zen, hasiera batean 2.500 bisita egiteko aurreikuspena izan zela.

- Helburua gainditu egin da, izan ere, 3.174 bisita egin dira EAEn, honela banatuta: 902 Araban, 1.077 Bizkaian eta 1.195 Gipuzkoan, eta gainera, 260 bisita azpiegitura handietara, hala nola, AHT.
- Osalanek Eraikuntza-sektorean jarduten jarraitu behar du, lortutako emaitzen arabera kanpainaren helburuak urtero berrikusi arren.

- Ibilgailuak konpontzeko tailerrak.

- Kanpaina 2010. urtean hasi eta gaitutako teknikariek garatu zen.
- 2011n zehar 231 enpresa bisitatu dira: 39 Araban, 127 Bizkaian eta 65 Gipuzkoan, aurreikusitakoak 141 izan zirela.

- Hondakinen bilketa-enpresak.

- Kanpainaren helburua zen Osalanek inoiz esku hartu gabeko jarduera-sektore batean LAParen egoera ezagutzea, makinetan, agente kimiko eta fisikoen eraginpean egoteari dagokionez dauden gabezia nagusiak identifikatzea, eragile horien inguruko legeria betetzen den jakitea eta prebentzio-neurrien katalogoa egitea.
- 147 enpresa bisitatu dira: 41 Araban, 99 Bizkaian eta 7 Gipuzkoan, aurreikusitakoak 32 izan zirela.

- Industrialdeak.

- 2010. urtean kanpaina hasi eta gaitutako teknikariek garatu zen. 2011. Urtean kanpainarekin jarraitu da enpresek LSoko legeria betetzeko dituzten zailtasunak ohikoenak ezagutzeko eta lan-baldintzei eta LAP kudeatzeari buruzko aholkularitza emateko.
- 2011n Bizkaiko Lurralde Historikora mugatu da kanpaina, eta bertan Elkartegi eta Ugarte alde industrialdeak hautatu dira, non 19 enpresa bisitatu baitira.

- Kanpoko Prebentzio Zerbitzuen jarduketaren kalitatearen ebaluazioa.

- Kanpainaren helburua zen kanpoko Prebentzio Zerbitzuek enpresetan LAParen lau diziplinaren inguruan burututako jarduketaren kalitatea aztertzea, honako helburu zehatz hauekin: gabezia nagusiak eta horiek kausak identifikatzea, egoera-txostena egitea eta, gainera, aurkitutako gabeziak zuzentzea gomendatzea.
- Aurreko atalean aipatutako kanpina, kanpaina pilotu gisa garatu da hiru Lurraldeetako enpresa eta Prebentzio Zerbitzuen talde txiki batean eta 2012an garatzeko aldatu egingo da, arreta berezia enpresetako prebentzio-ekintzaren kalitateari emanez.



JI.5.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA, ENPRESAK ETA LAN-BALDINTZAK HOBETZEKO

LSOEEak jarduketa-ildo honetan dituen helburuek lan-baldintzak hobetzearen alde egitea dute xede, LAParen Legearen arabera berori osatzen duten alderdiei ekinez. Bi lan-arloren bitartez garatu du Osalanek: bat orokorra, A.9 eta bestea berezia, A.10., Lehen Sektorean.

2.9. LAN BALDINTZAK – (A9)

Osalanek arlo honetan 2011rako ezarritako helburuak enpresetako lan-baldintzen hobekuntzan eragina duten faktore batzuetan oinarrituta zeuden, eta tartean, makina eta lan-ekipoetan, agente kimikoetan, eragiketa eta ekintza arriskutsuetan, zein prebentzio-tratamenduari dagokionez gabezia gehien dituzten kolektiboren batean. Honako ekintza hauek burutu dira:

- Makinen eta lan-ekipoen berritzea sustatzea, ekipo zaharren ordeztaraz betetzen duten beste modernoago batzuk ezartzea bultzatuz.

- SPRIrekin elkarlanean, makina zaharrak kendu eta ekipo berriak jartzeko enpresei zuzendutako diru-laguntza programa garatu da (.....zk.ko EHAA), eta ondorioak honako hauek izan dira:

- o Guztira, 136 enpresak eskatu dute diru-laguntza (16 Araban, 44 Bizkaian eta 76 Gipuzkoan) 191 makinatarako.
- o Osalaneko teknikariek makina guztiak ikuskatu eta aldeko 178 txosten eta aurkako 13 egin dituzte.

- Ezbehar-tasari handiena duten eragiketa eta ekintzetan segurtasuna sustatzea.

- Lan-ekipoak instalatu, mantendu eta konpontzeko eragiketaz aztertu eta ondorioen agiria egin da. Agiri hori enpresetan 2012an ezagutaraztea aurreikusten da.

- Errepideetako joan-etorrietan gertatzen diren lan-istripuei buruzko arazoari ekin eta Osalanek egindako azterlanaren emaitzak argitara eman dira, “jarduneko” eta “in itinere” istripuak bereiziz.

EHUko Uda Ikastaroan aurkeztu da azterlan hori eta baita Osalanen web orrian argitaratu ere. 2012an eguneratu egingo da txostena 2011ko datuekin, eta emaitzak ORP Biltzarrean aurkeztuko dira.

- EAEko enpresetan substantzia kimikoen REACH europar Erregelamenduaren ezarpena sustatzea.

Osalan, substantzia kimikoen REACH europar Erregelamenduaren inguruan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako Sailarekin elkarlanean aritu da, eratutako koordinazioa politikoko Mahaian eta Mahai teknikoan esku hartuz.

- REACH inguruko Euskal Estrategiaren diseinuan eta informazioa emateko REACH atari eta bulegoa abian jartzen aritu dira elkarlanean. Azken bi horiek 2011ko irailaren 13an aurkeztu ziren.

- OSALANeko teknikariek REACH inguruko prestakuntza jaso dute.

- Informazio-fitxak egin dira.



- REACH EN FORCE2 ekintza garatuko da, eta horretan enpresak bisitatuko dira Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin batera urtarrilean eta otsailean.

Lan-ildo hori 2012an zehar lantzen jarraituko da.

- Generoaren arloko jarduketak garatzea:

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren IX. Legegintzaldirako Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Programaren garapenean esku hartu da.
- "Generoa", ikerketa-proiektuei diru-laguntzak emateko irizpide gisa sartu da.
- Kontzientziazio- eta sentikortze-ekintzak sustatu dira:
 - o Osalanen web orrian argitaratutako ponentzia EHUko Uda Ikastaroan: "LAP generoaren ikuspegitik: Osalanen jarduteko aukerak".
 - o "Lanean Amatasuna babestea" gaiaren inguruko jardunaldia, 2011ko urtarrilaren 19an izan zen Donostian.

2.10. LEHEN SEKTOREA – (A.10)

Osalanen arlo honetan zuen helburua zen lehen sektoreko eta horren inguruko industrietako lan-baldintzen hobekuntza sustatzea eta LAP sektoreko enpresen kudeaketan integratzearen alde egitea. Horretarako:

- Arrantza-sektoreko ITSASPREBEN eta nekazaritza- eta basogintza-sektoreko NEKAPREBEN izeneko LAP Planetan eraginkortasunez lan egin da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin eta bestelako Erakundeekin batera jarduketak garatuz, sektore horien lan-baldintzak aztertu eta hobetze aldera.

- Osalanek zera egin du, batetik, Plan estrategikoen eskatutako laguntza teknikoa eman eta, bestetik, horien Idazkaritza Teknikoarekin elkarlanean etengabe aritu.
- Alderdi teknikoan, Arriskuen Ebaluazioen eredu ezberdinak aztertu eta horiek hedatzeko gidak egin dira, sektorean lan egiten duten profesionaleri laguntzeko tresna gisa:
 - o ITSASPREBEN: 2 gida amaituta eta 8 egiten.
 - o NEKAPREBEN: 4 Prebentzio Eredu, 4 Arrisku Ebaluazio eta 4 Plan berrikusi dira.
- Halaber, EHUko Uda Ikastaroetan, Arcachonen Euskadi eta Akitaniako Elkarte Medikoaren kongresuan, ORP 2011 biltzarrean eta Bilbao Port izenekoan, eskuratutako emaitzak eta produktuak hedatzeko dibulgazio-ekintzetan esku hartu da.
- Osalanek, ITSASPREBEN eta NEKAPREBEN Planetan esku hartzen jarraituko du 2012an zehar, indarrean dauden bitartean.

- Kantauriko Erlaitzeko 4 erkidegoetako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeen arteko lankidetzaproiektua abian jarri da, elkarrekin arrantza-sektorean LAPeko ekintzak garatzeko: CANO proiektua.

- 2011. urtean zehar, baxurako arrantza-sektorean Osasuna Zaintzeko Gida egin da,



sektoreko langileen osasunean berariazko zaintza behar bezala ezartzeko orientabide eta tresna egokiak eskaintzeko helburuarekin. Gida hori beste arte batzuetara zabaldu nahi den lanaren lehen zatia izan da eta hainbat jardunaldi teknikotan aurkeztu da.

- EAEko Baxurako Arrantzako ontzi eta armadoreak bisitatzeko kanpaina diseinatu eta burutu da.
 - Kanpainaren helburua ontzietako lan-baldintzak egiaztatzea zen, eta tartean, makinan eta lan-ekipoen segurtasuna, suteen aurkako segurtasuna, ontziratze eta ontzitik irteteko baldintzak, babes indibidualerako ekipoak, eta baita Langileen Osasunaren Zaintza nola egiten den aztertzea ere.
 - 50 itsasontzi hautatu eta oraingoz 16 bisitatu dira; gainerako 2012an bisitatuko dira.

- 2011ko patata- eta mahats-bilketetan sasoikako lanaren kanpaina garatu da, EAEko Erakunde arteko Mahaiak Sasoikako Lanaren Arretarako 2008-2012ko II. Plan Integralari jarraitutasuna emanez.
 - Kanpainaren helburua LAP sustatzea da, horretarako, enpresa, langile eta erakunde publikoei alderdi orokorrean buruzko aholkularitza teknikoa eman, zein informazioa eskaini eta sasoikako langileei gertatutako lan-istripu eta gaixotasun profesionalen ingurukoak jaso eta aztertu direlarik.
 - Kanpaina Agurain eta Laguardian hasi zen, irailaren 13 eta 14an, eta ondorengo emaitzak eskuratu ziren:
 - Patataren kanpainan 8 udaletxe, 5 Osasun Zentro, Aterpetxe bat, 3 Kooperatiba eta 4 Nekazari bisitatu dira. Bisitetan informazio-foiletoak banatu, LAP legearen betetze-maila egiaztatu eta tarteko alde guztiei informazioa eta aholkularitza eman zaizkie. 2 istripu arin baino ez dira egiaztatu eta sasoikako langileen kopuruak behera egin duela hauteman da, gero eta gehiago direlako horien lana egiten duten makinak.
 - Mahats-bilketaren kanpainan 6 Udaletxe, 2 Herri Erakunde, 2 Osasun Zentro eta 8 Enpresa bisitatu dira. Halaber, informazio-foiletoak banatu dira bisitetan, LAP legearen betetze-maila egiaztatu da eta tarteko alde guztiei informazioa eta aholkularitza eman zaizkie. 4 istripu arin hauteman eta sasoikako langileen kopurua egonkor mantendu da aurreko kanpainekin alderatuta.



JI.6.- LAP KUDEAKETAN INTEGRATZEA ENPRESAREN BIKANTASUNA SUSTATZEKO

Estrategian ezarritako helburu nagusiak LAP enpresen kudeaketa egiazki txertatzea du xede, hierarkia-maila guztien inplikazioarekin, eta bereziki ardura gehien dituztenekin, ekintza guztien prebentzio-alderdia ezarriz. Hori lortzeko, A.11 arloan barne hartutako ekintzak garatu ditu Osalanek.

2.11. LAP KUDEAKETAN INTEGRATZEA – (A.11)

Osalanek arlo honetan lortu nahi duen helburua da enpresei, eta bereziki ETEei, kudeaketan LAP integratzen laguntzea. Honako ekintza hauek burutu dira:

- Enpresei kudeaketan LAP integratzeko aholkularitza eta tresnak ematea, beren arazoak kontuan izanda.
 - Enpresen kudeaketan LAP zenbateraino eta nola integratuta dagoen baloratzeko adierazle-sistema prestatu da, horretan eragiten duten faktoreak identifikatuz. Sistemaren eredu pilotua enpresa-talde batean ezarri behar da emaitzak aztertzeko eta, dagokion doikuntza egin ondoren, hedatu egin behar da bere aplikazioa orokortzeko.
 - Enpresa handien esperientzietatik abiatuta egin den eta koordinazio-ekintzak sinplifikatu eta erraztuko dituen prozedura baten inguruan lan egiten ari da. 2012. urtean, EAEan izan dezakeen aplikagarritasuna aztertuko da.
- Enpresei, eraginkortasun ezaguneko LAParen kudeaketa-sistemak ezartzen laguntzea.

OHSAS 18001 araberako ziurtapenaren bitartez egiaztatutako eraginkortasuna duten LAP aren kudeaketa-sistemak ezartzeko diru-laguntzak eman dira eta 127 enpresak jaso dituzte diru-laguntza horiek (10 Araban, 90 Bizkaian eta 30 Gipuzkoan). (..... zk.ko EHAA).



JI.7 – BERARIAZKO PRESTAKUNTZA

LSEOOEan lortu beharreko helburu nagusia enpresetan LAP egiteko beharrezkoa den prestakuntza bultzatzea da, LSOaren zuzeneko eragileak gaituz eta hainbat arriskuren aurrean prestakuntza bideratuz. Prestakuntzaren garrantzia zenbaterainokoa den jakinda, A.12 arloan eraginkortasunez lan egin du Osalanek eta ondoren azaltzen diren emaitzak izan ditu.

2.12. BERARIAZKO PRESTAKUNTZA – (A.12)

Enpresetan Laneko Segurtasun eta Osasuneko eragile garrantzitsuenen prestakuntza sustatu nahi da, eta tartean, enpresaburu, zuzendari eta bitarteko agintari, prebentzioko ordezkari, izendatutako langile eta prebentzioko baliabideena, eta baita osasun-arloan LSOean lan egiten duten eragile nagusien eta prebentzioko teknikarien kalitatezko prestakuntza sustatu ere. Horretarako, honako ekintza hauek burutu dira:

- OSALANen Ikasgela birtuala martxan jarri da, interesa duten kolektibo ezberdinei prestakuntza-edukiak edota -ikastaroak eskaintzeko plataforma izan dadin.
 - *On-line* Campusak urriaren 1ean ekin zion lanari, ezaugarrien eta exijentzia-mailaren arabera 3 mailatan elkartutako 7 ikastaroren katalogo batekin. Horietatik 2 ikastaro eman dira (LAParen Kudeaketa Sistema Unibertsala – LANEren Jarraibideak eta, gaur egun, Auditorien oinarritzko ikastaroa), dagoeneko, eta gutxi barru hirugarrena (Kudeaketa integratuaren hastapenak) hastea aurreikusten da.
 - Lehen ondorio gisa, ekimenak izan duen interes handia ikusten, ikastaro bietarako eskaintako plaza guztiak berehala bete baitziren. Ezarpen-aldi luzeago baten ondoren beste adierazle-mota batzuk aztertuko dira.
- Prebentzioko Ordezkarien prestakuntzarekin jarraitu da:
 - Eskuliburuak egin eta, ondoren, web bidez hedatzea: Eskuliburuaren edukiak, horietako bakoitzarekin lortu beharreko helburuak eta aplikatu beharreko metodologia berrikustea. Ergonomiaren arloa aldatu da eta hurrengo hedapen-kanpainan barne hartzeko prest dago. Gainera, Psikosoziologiaren arloa garatzen ari da.
 - 2011n prebentzioko ordezkariari emandako prestakuntzaren xehetasuna 2. taulan azaltzen da, eraikuntzaren Ikasgela iraunkorrean emandako prestakuntzarekin batera.
 - Lanbideren ardurapekoa da kudeaketa ekonomikoa.



2. TAULA: 2011KO PRESTAKUNTZA

HOBETUZ 2011/01/01ETIK 2011/06/30ERA

PREBENTZIOKO ORDEZKARIAK

ARAUDIA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
ikastaroak	10	23	24	57
ikasleak	160	399	392	951

TEKNIKA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
ikastaroak	5	14	12	31
ikasleak	90	266	218	574

IKASGELA IRAUNKORRA

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
ikastaroak		6	32	38
ikasleak		88	468	556

LANBIDE 2011/07/01ETIK 2011/12/31RA

PREBENTZIOKO ORDEZKARIAK

ARAUDIA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
ikastaroak	5	14	12	31
ikasleak	91	247	157	495

TEKNIKA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
ikastaroak	4	7	16	27
ikasleak	76	120	281	477

IKASGELA IRAUNKORRA

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
ikastaroak		3	15	18
ikasleak		47	221	268



- LAPean esku hartzen duten guztiak ezagutzea bultzatu da, gai bereziei buruzko Jardunaldi Teknikoak antolatuz.

- Guztira, LSO inguruko gai bereziei buruzko 10 jardunaldi tekniko antolatu dira.
- Ondorio gisa esan daiteke 2011ko kudeaketa-planak ezarritako helburua bete dela, hots, bere indarraldiko hilabete guztietan, abuztuan izan ezik, EAEn jazoera dibulгатzaile bat antolatzearena. Asistentzia masiboa izan da eta hainbat kasuetan txiki gelditu da tokia. Horrela, Osalaneke antolatzen dituen jazoerek interes handia sortzen dutela nabarmendu da.

- Hasitako lan-ildoarekin jarraitu da, hau da, arreta espezializatuko osasun-langileei gaixotasun profesionalaren susmoa antzeman eta jakinarazteari buruzko prestakuntza ematea.

- Lehenetsuneko 6 espezialistekin kontaktatu eta horiekin lan egin da gaixotasun profesionalen zerrenda doitzeko eta dagozkien espezialitateetan ohikoenak direnak ezartzeko. Otorrinolaringologia eta dermatologiako espezialistei zuzendutako prestakuntza dibulгатzailea hasia erabaki da.
- 2012rako hedapenaren egutegiaren plangintza egin, eta EAEko ospitaletara iristea erabaki da.

- LAPeko goi-mailako teknikarien prestakuntza gainbegiratu da EHUrekin elkarlanean.

Lan Harremanetako Eskolak ematen duen LAPeko Masterrean esku hartzeko OSALANek EHUrekin sinatutako Hitzarmena esparru guztietan garatu da: irakasleen aholkularitzan, finantziarioan, irakaskuntza teoriko-praktikoan, etab. Ikasturtea Irekitzeko ekitaldian izan zen Osalan, Irailaren 26an.

2012ra begira, EHUrekin elkarlanean jarraituko da, eta aldi berean, Mondragon eta Deustuko Unibertsitateekin araututako prestakuntza eskaintzeko aukerak aztertuko dira.



3. TAULA: OSALANEK 2011 KP BARRUAN ANTOLATUTAKO JAZOERAK

JAZOERA	EGUNA	TOKIA	HELBURUA
Jardunaldia: "Lege-alderdiak eta erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioan".	Otsailak 3	Barakaldo	- Laneko ezbehar-tasaren tratamendu penala eta erantzukizunak Fiskaltzaren ikuspegitik lantzea. - Jarduera administratiboaren eta penalaren arteko koordinazioa eta arazoak azaltzea. 350 lagun bertaratu ziren.
Jardunaldi teknikoa: "Agente kimikoen eraginpean egotea ebaluatzeko metodoak eta REACH".	Martxoak 29	Bilbo	- Arrisku kimikoa ebaluatzeko metodoei eta ebaluazioaren adierazgarritasunari buruzko esperientzien berri ematea eta elkartrukatzea. - REACH Erregelamenduaren eta lanean eraginpean egotearen eta eraginpean egondako eszenatokietan eragina ebaluatzeko garatutako eredu berezien arteko erlazioari buruzko informazioa ematea (ECETOC -TRA y ART - Advanced Reach Tool). 250 lagun bertaratu ziren.
Jardunaldi Teknikoa: "Lanari egotz dakioken gaixotasun-zama eta dagokion osasun-kostua Euskadin".	Maiatzak 27	Bilbo	- Osalaneke Lanari egotz dakioken gaixotasun-zama eta dagokion osasun-kostua Euskadin" gaiari buruz egindako lkerketa Proiektuaren ondorioak azaltzea. - Jatorria lanean izan dezaketen gaixotasunak azaleratzeko moduari buruz eta, zehazki, EAEn jatorria lanean izan dezakeen gaixotasuna jakinarazteko sistemaren gainean eztabaidatzea. 250 lagun bertaratu ziren.
"Laneko Segurtasun eta Osasunari" buruzko EHUko Uda Ikastaroa.	Ekainak 20-22	Donostia	- LAP eta laneko osasunari buruzko hainbat alderdi zabaldu eta ezagutzera ematea. - Enpresetan LAP esparruarekin zuzeneko edo zeharkako zerikusia duten eta arlo horretaz interesa duten pertsonen prestakuntza eta informazioa ematea. Batez beste, 100 lagun bertaratu ziren.
Jardunaldi Teknikoa: "Silizea eta kuartzozko aglomeratuak" (CNVM zentroarekin batera)	Irailak 20	Bilbo	- Silize kristalino askearen eraginpean egoteko mugek denboran zehar izan duten bilakaera eta eraginaren bilakaera fidagarriak bideratzen dituzten laginak hartzeko eta analisiak egiteko metodologiak azaltzea. - Euskal Autonomia Erkidegoko kuartzozko aglomeratuen sektoreko enpresen egoerari buruz egindako azterlan baten emaitzak aurreratzea. 150 lagun bertaratu ziren.
Jardunaldia: "Arrantza-sektoreko Osasunaren Zaintzari buruzko Gidaliburuaren aurkezpena"	Azaroak 15	Santurtzi (Bizkaia)	Gidaliburua honako hauetarako tresna gisa aurkeztea: - Arrantza-sektoreko langileek burutzen duten jarduerari eta betetzen duten lanpostuari datzekien arriskuen inguruko berariazko eta banakako OZ lortzea. - Berariazko OZ kolektiboa egitea, sektorean LSOko adierazleak eskuratzeko; adierazle horiek autonomia, Estatu zein Erkidego mailako enpresentzat balioko dute, eta horien bitartez prebentzio-estrategiak ezarri eta ezarritako helburuen betetze-maila baloratu ahal izango da. 60 lagun bertaratu ziren.
Arrisku Psikosozialei eta Lanaren Antolaketei buruzko II. Jardunaldiak.	Azaroak 24-25	Bilbo	Faktore psikosozialekin zerikusia duten arriskuen eta horiek langileen osasunean eragin ditzaketen ondorio kaltegarrien prebentzioa eta ezagutza sustatzea. 280 lagun bertaratu ziren.
"Prebentzioko Baliabidearen Eskuliburua" aurkezteko Jardunaldi Teknikoa (MUTUALIArekin batera).	Azaroak 30	Bilbo	Prebentzioko Baliabidearen Eskuliburua aurkeztea, 54/2003 Legeak sortu zuen Prebentzioko Baliabidearen irudiaren inguruan dauden irizpideak eta askotariko araudia argitzeko beharrari erantzuteko agiri bakar gisa. 300 lagun bertaratu ziren.
Jardunaldi Teknikoa. Lan-ekipoak erabiltzeari buruzko arriskuen ebaluaziorako eta prebentziorako gida teknikoa, (LSHINekin elkarlanean).	Abenduak 1	Bilbo	Lan-ekipoak erabiltzearen inguruko arriskuen prebentziorako eta ebaluaziorako Gidaliburuaren bertsio berria aurkeztea (zegoen Gidaliburua eguneratuta). Berri berri honek, lan-ekipo mugikorren eta karga-jasogailuen inguruko osatu eta altueran eskaillerarekin, aldamiokien egiten diren aldi baterako lanetarako eta soken bidez igo eta kokatzeko tekniketarako xedapenak egokitu ditu. 200 lagun bertaratu ziren.
Jardunaldi Teknikoa. Zarataren eta silize-hautsaren eraginpean dauden langileen berariazko osasunaren zaintzako protokoloak.	Abenduak 16	Bilbo	Zarataren eta silize-hautsaren eraginpean dauden langileen berariazko osasunaren zaintzako protokoloak berrikustearren ondoriozko emaitzak azaltzea (Ebidentzian Oinarritutako Medikuntzaren metodologiaren arabera). 250 lagun bertaratu ziren.
Jardunaldi tekniko-medikoa (LSHINekin batera antolatuta) Lanetan Amatasuna babestea.	2012ko urtarrilak 19	Donostia	CNCT/LSHINekin egindako "Lanean Amatasunak dituen arriskuak eta babesa ebaluatzeko jarraibideak" agiria aurkeztea eta lanean amatasuna babestearren inguruan dauden hainbat esperientzia eta tarteko hainbat esparruk horren inguruan dituzten iritziak azaltzea. 150 lagun bertaratu ziren.



JI.8 – OSASUNAREN ZAINITZA

LSOEEK jarduketa-ildo honetan zituen helburuak ziren, Langileen Osasunaren Zaintza arriskueta zuzentzea egotea, prebentzio-ekintzak integratzea, hiritarraren osasunaren historian jasota gelditzea eta gizabanakoei nahiz kolektibitateei zuzendutako ekintzak barne hartzea. Horretarako, honako ekimen hauek burutu ditu A.13 arloan:

2.13. OSASUNAREN ZAINITZA – (A.13)

Helburu estrategikoa hainbat helburu zehatzetan zatitu du Osalanek arlo hau, OZren zehaztasunera eta kalitatera, historia kliniko-laborala ezartzera, OZ kolektibora eta lan egin ondoko OZra zuzenduta, eta horretarako ondorengo ekintza hauek garatu ditu:

- Langileen OZ berariazkoa izatearen eta kalitatezko irizpideen arabera burutzearen alde egitea.

- Osasun-arrazoiengatik luzaroan lanera joan ez diren langileen osasun-ebaluazioa egiteko betekizuna betetzen dela jarraitzea.

IT Foroak eskatuta, Euskadiko Herri Administrazioetan proiektu pilotua garatu da, Osakidetzako, Bilboko Udaleko, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Ertzaintzako Prebentzio Zerbitzuei zuzenduta. 2012. urtean arlo honetan lanean jarraituko da.

- Enpresetan Drogamenpekotasunei aurrea hartzeko prozedura ezartzeko Gida garatzen ari da.

Gizarte-eragileekin enpresaburu, sindikatu eta prebentzio-zerbitzuek osatutako lantaldea eratu da Gidaliburua adostu eta, ondoren, ORP'2012 biltzarrean aurkezteko.

- Zarataren eta Silizearen eraginpean dauden langileen osasunaren zaintzako protokoloak berrikusi dira, Ebidentzian Oinarritutako Medikuntzaren metodologia aplikatuz, eta egindako lanak zientzia-munduaren aitoren handiena lortu da.

2012an Asmaren protokoloari ekitea aurreikusten da.

- Langileak jardunean dagoen bitartean eta ondoren izango duen historia mediko-laboralaren eredia garatzea.

- Historia mediko-laboralaren ereduaren zirriborroa egin da, eta horrek lanpostuaren deskribapen zehatza barne hartzen du, LAPari buruzko legeriak eskatutakoa betez.

- Prebentzio-zerbitzuekin lantaldea eratu da eredia adosteko eta ezarpena zuzentzeko.

- Halaber, kontaktuak izan dira Osasun eta Kontsumo Sailarekin eta Osakidetzarekin, hiritarraren historia klinikoan nola txertatuko den zehazten hasteko.

2012an, lan-ildo hau garatzen jarraituko da, egindako aurreikuspenaren arabera, eta ORP 2012 biltzarrean proiektuaren garapena aurkeztuko da.

- Taldeko Osasunaren Zaintza sustatzea eta enpresaren prebentzio-ekintzan txertatzea.

Batez ere ekintza dibulгатzaileen bitartez ekin zaio ekintza honi. Hartara, taldeko OZ arloko aholkularitza eman zaie PZei eta ekintza dibulгатzaile bat egin da Lanaren



Medikuntzako Biltzarrean (2011ko azaroa).

Taldeko OZrako zaintza epidemiologikoko jarraibideak eta oinarrizko irizpideak lantzen ari dira, eta Zarataren eta Silikosiaren Protokoloetan irizpideak sartu dira dagoeneko.

2012. urtean ildo honen inguruan lan egiten jarraituko da.

- Lanaren ondoko Osasunaren Zaintza (LOOZ) garatzea, eta bereziki amiantoaren eraginpean egon ahal izan diren langileen kasuan.

- Zarataren eta Silikosiaren Protokolo berrikusietan LOOZ inguruko kapitulua sartu da.
- **Amiantoaren** eraginpean egon ahal izan diren langileen LOOZari dagokionez, lan-bizitzan zehar hainbat ekintza egin dira, Laneko Segurtasun eta Osasunaren inguruan aurrez aurre aurkitzen dugun arazorik larrienetako bat delako eta aurreikuspenen arabera larriagotu egin daitekeelako.
 - Hitzarmena adostu da GSINekin, amiantoaren litekeen eraginpean egon izanak eragindako Gaixotasun Profesionalek kasuetan informazioaren trukea arintzeko. Sinatzea baino ez da falta.
 - EAEn amiantoaren eraginpean egon ahal izan diren langileen Zerrenda ezarri da, guztiei LOOZ izateko aukera eskaintzeko.
 - Osalaren Gaixotasun Profesionalek ikertzeko Prozedura berrikusi da, eta horien artean amiantoa, ematen diren kasuei erantzun hobea eman ahal izateko.
 - Amiantoaren EAEko egoerari buruzko txostena egin da, Legebiltzarraren eskaerari erantzuteko, eta 2012ko otsailean aurkeztuko da jendaurrean.
 - Langileak iraganean hainbat arriskuren eraginpean egon izana ebaluatzeko zeharkako metodoak aztertzeko lan-ildoei ekin zaie, eta tartean, Lana-Eraginpean egotea Matrizeak. Zentzu horretan, gaiari buruzko mahai-ingurua antolatu zen EHUK Udak Ikastaroan, beste espezialista eta herrialde batzuen irizpideak ezagutzeko lehen neurri gisa.
- Ondorengoak dira lanean amiantoaren eraginpean egon izanarekin lotuta 2011n egindako osasun-ekintzak:

AMIANTOAREN ERAGINPEAN EGONDAKO KOLEKTIBO EZBERDINEN JARRAIPENA (gehiago barne hartu dira)	JARDUNEAN DAUDEN LANGILEAK	120
	LAN EGITEARI UTZI DIOTEN LANGILEAK	91
OSASUN ZAINZAREN JARRAIPENA (osasun-azterketak)	OSASUN ZERBITZUA	666
	OSAKIDETZA	172
JARDUTEKO PROZEDURA	ERREKERIMENDUAK	40



JI.9 – LAP ARLOKO EKINTZEN KALITATEA

Estrategiaren helburua arlo honetan, enpresa eta erakundeetan LAP kudeatzen duten jarduketan kalitatea lortzea zen. A.14 arloan lan egin du Osalanek horren inguruan, beste arlo batzuetan burututako ekintzek enpresetako LAParen kalitatean hobetzen lagundu arren. Tartean, kanpainen barruan garatutako aholkularitza-ekintzak zein jardunaldi teknikoak eta ekintza dibulgatzaileak. Prebentzio-ekintzaren kalitatean inpaktu berezia du, halaber, Etxeko, Kanpoko eta Elkartutako Prebentzio Zerbitzuekin horretarako sortutako lantaldeetan garatzen ari diren lana.

2.14. LAP ARLOKO EKINTZEN KALITATEA – (A.14)

Arlo honetan garatutako ekintzen helburua enpresetako prebentzio-antolakundeek arriskuak hobeto identifikatu eta tratatzera zuzenduta zegoen, horrek langileak arrisku horien menpeko eragin txikiagoa izatea ekar zezan. LAPeko diziplina ezberdinetan garatutako ondorengo ekintzekin lortu nahi izan da hori:

- Arrisku higieniko, ergonomiko eta psikosozialen ebaluazio-metodo zorrotz eta estandarizatuen ezarpena sustatzea, hots, “irizpide teknikoaren” gehiegikeriaren aurka arrisku-maila objektibotasunez ezagutzea ahalbidetzen dituztenak.

- Enpresetara egindako bisiten kanpainen Arrisku Higienikoen Ebaluazioak bildu dira, eta horiek aztertu egin dira arauen egokitasuna eta egindako jarraipena baloratzeko.
- Andaluziako Juntaren “AGENTE KIMIKOEN ERAGINPEAN EGOTEAREN ARRISKU HIGIENIKOAK KUDEATZEKO PROZESUA” izeneko lana berrikusi da, prebentzio-zerbitzuekin osatutako lantaldeari proposamen bat egiteko abiapuntu izan daiteke-eta.

2012. urtean zehar, Espezializatutako Erakundeekin arrisku higienikoen ebaluatu eta ezartzeko metodoa adosteko lan egingo da.

- Arrisku psikosozialen arloko lan-ildoak abiarazi da, arrisku horiek gaur egungo EAEn duten egoeraren diagnostiko batetik, behar nagusiak identifikatu eta jarduketa-plana ezartze aldera.

Osalanen, Psikosoziologiaren diziplinan espezializatutako Kudeaketarako Laguntza Taldea eratu da jarduketa-ildo hau garatzeko. Honako hauek barne hartu dituzte ekimen nagusiek:

- Enpresetan beteko den chec-list bat prestatzea, horietan arrisku psikosozialen egoera identifikatzeko.
- Bilerak Etxeko eta Kanpoko prebentzio-zerbitzuekin, EAeko arrisku psikosozialen Mapa egiten laguntzeko.
- Kontaktuak Jazarpenaren Euskal Behatokiarekin, jazarpen-arriskuaren Mapa egiten laguntzeko.
- Arrisku Psikosozialei eta Lanaren Antolaketei buruzko II. Jardunaldia izan ziren azaroan.
- Arrisku psikosozialaren inguruko aholkularitza.
- Enpresetan arrisku psikosozialen inguruan egiten diren ebaluazioen azterketa egiten ari da.
- Estatu-mailan arrisku psikosozialen eraginpean dauden langileen OZrako lantaldean esku-hartzea.



2012an zehar, hasitako ekintzetan aurrera egiten jarraituko da.

- Arriskuak eta prebentzio-neurriak hobeto ezagutzeko tresnak garatzea, prebentzio-antolakundeek erabil ditzaten.
 - Osalanek lan-istripuak ikertzeko erabiltzen duen Metodologia berrikusi da, antolaketalderdien balorazioa eta LAParen integrazioa eragiten duten faktore gisa txertatuz. 2012. urtean zehar egiaztatuko da horren hedapena eta ezarpena.
 - Jardunaldi Teknikoan Prebentzioko Baliabidearen Eskuliburua ezagutarazi da. Mutualiak eta OSALANek landutako argitalpen horretan, prebentzioko baliabideak izateko beharra ezartzeko eta jarduketa-motak, kasu ezberdinetan eskatutako gutxienekoak, prebentzioko baliabidearen eginkizuna, etab. definitzeko irizpideak ezartzen dira. Erakundearen web orrian dago eskuragarri argitalpen hori.
 - Hitzarmen sinatu da AENOREkin, EAEko enpresei LAP inguruan indarrean dauden UNE arau guztien testu osoa Osalanen web orriaren bitartez eskuratzeko aukera emateko. Ekimenaren publizitatea egin da eta 2012an zehar garatuko da.



JI.10.- JAKINTZA SORTZEA

Estrategiaren lehentasunezko helburuetako bat LSO arloko jakintza sortu eta partekatzea da eta, horretarako, funtsezkotzat jotzen da ikerlanak eta ikerketa-proiektuak bultzatzea, LAPeko diziplina guztietako adituak eta jakinduria eta esperientzia gehi dezaketen eragileek esku hartuta. Osalanen 2011ko Kudeaketa Planaren barruan, A.15 lan-arloan barne hartu dirua gai honen inguruko ekintzak.

2.15. IKERKETA – (A.15)

Hainbat arriskuren egoera, kolektibo jakin batzuen lan-baldintzak, gaixotasun profesionala eta horiek horren eraginpean egotea ezagutzea ahalbidetuko duten ikerketa eta azterlanak sustatzea zen arlo honen helburua, politikak, kanpainak eta prebentzio-neurriak diseinatzeko. Horretarako:

- Osalanen ikerketa-arloko politika definitu da, eta hori LAP arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzen kanpainan gauzatu da.
 - Osalanen ikerketa Politika ezarri da, zeina, 2011-2014KO LSOEEaren urteko hedapenaren ondoriozko 2011rako Kudeaketa Planean jasotako jarduketa-arloen inguruko ikerketa-proiektuak lehenestean baitatza. Hona zehazki burututa ekintzak:
 - In itienere edo jardunetan gertatutako errepideko lan-istripuen prebentzioa.
 - Lanean jatorria duten eta goiko gorputz-adarrei eragiten dieten hezur eta muskuluetako arazoei aurrea hartzeko alderdiak.
 - Laneko estresarekin edota «burnout» delakoarekin zerikusia duten prebentzio-alderdiak.
 - LAP generoaren ikuspegitik.
 - LAP ezgaitasun fisiko edo psikikoaren ikuspegitik.
 - LAP immigrazioaren ikuspegitik.
 - LAP ETEen, eta bereziki mikroenpresen, ikuspegitik.
 - Osasunaren zaintza: gaixotasun profesionalak kostua.
- EAEaren esparru barruan Laneko Arriskuen Prebentzian enpresen laneko antolaketa-sistemen inaktuaren azterlana garatu da.
 - EHUko Uda Ikastaroetan eta Arrisku Psikosozialei eta Lanaren Antolaketari buruzko Jardunaldietan aurkeztu dira azterlanaren ondorioak.
 - Ondorio horietatik eratorri eta garatu beharreko litekeen ekintzen plangintza 2012rako Kudeaketa Planean egingo da.
- Lanari egotz dakioken gaixotasun-zama eta dagokion osasun-kostua Euskadin gaiari buruz egindako proiektua garatu da.
 - Azterlana egin ondoren, maiatzean egindako Jardunaldi Teknikoan ondorioak aurkeztu ziren.
 - Arestian esan bezala, Osasun Sailari igorri zaio azterlana dagozkion neurriak har ditzan.
 - Sortutako interesa dela-eta, 2012an zehar azterlanaren irismena handitzea planteatu da.



- Ergonomiaren arloko ERGOZAINZA eta LANBIDERGO arloetan egindako proiektuen emaitza jakinarazi da.
 - EHUko uda ikastaroetan honako proiektu hauek aurkeztu dira:
 - ERGOZAINZA - Geriatria-zentroetarako ergonomia: pertsonak eskuz mugitzeko metodologia garatzean datza.
 - LANBIDERGO - Ergonomia eraikuntzako lanbideetan: pintore-lana; pintore-lanbidearen arrisku ergonomikoa ebaluatzeko metodologian datza.



JI.11 – INFORMAZIO SISTEMAK

Estrategiaren zeharkako jarduketa-ildo honen helburua da LSOean barne hartutako Informazio Sistema diseinatu, garatu eta ezartzea, EAEko langileen osasun-egoerari eta lan-baldintzei buruzko kalitatezko informazio eguneratu eta ulergarria bildu, prozesatu, aztertu eta helarazteko. Helburu hori A.16 arloan landu da.

2.16. INFORMAZIO SISTEMAK – (A.16)

Lan-arlo honetan asmo handiko helburuak proposatu ditu Osalanek, datu-iturrien integrazioan eta sistemen arteko operabilitatean oinarritutako informazio-sistema izatera zuzenduta, politikak eta jarduketa diseinatzea eta burututako esku-hartzeak ebaluatzea ahalbidetuko duen EAEko LSOaren egoerari buruzko kalitatezko informazio eguneratua izateko. Honako ekintza hauek burutu dira horretarako:

- Informazio Sistema OSALANen integratuta diseinatu eta garatzea, iturriak identifikatuz eta horiek ezagutuz, kudeaketa-prozesuak diseinatuz eta garatuz eta Erakundearen eta hirugarren batzuen beharraz asetzeko informazio-irteerak sailkatuz.
 - Aurretiazko urratsak:
 - IGATT aplikazioa, Osalanen lan-istripuen estatistikak ustiatu eta hedatzeko izan ditzakeen behar berrietara egokitzea.
 - “Aldi baterako” irtenbideak garatzea, kanpainen erregistroa eta kontrola egiteko (parametroen bidezko aplikazioa).
 - Osalanen integratutako Informazio Sistema diseinatu eta garatzea:
 - EJI Eri, arlo teknikoko aplikazioak eta LOUko lehentasunezko batzuk garatzeko eskatu zaio, apirilean onartutako diseinu, egutegi eta aurrekontuaren arabera.
 - Arlo Teknikoko jarduera eta kudeaketari buruzko informazioa guztia barne hartuko duen sistema garatzea (kanpainak, lantokiak irekitzea, istripuak,...).
 - Laneko Osasun Arloko sistemak identifikatzea, hain zuzen ere, Prebentzio Zerbitzuen Baimena, Datuen Gutxieneko Multzoa, Gaixotasun Profesionalaren Susmoa, Salaketak, Errekerimenduak, Gaixotasun Profesionalaren Arriskua (Amiantoa) eta CEPROSSeko datuen ustiapena.
 - 2012. urtean, 2011n identifikatutako informazio-sistemak aztertu, diseinatu eta eraikitzeko faseei ekiten ari zaie, eta uztailen amaitzea aurreikusten da.
- Lanari lotutako osasun-arazoen izaera eta garrantziari eta EAEko biztanleengan erabakigarriak diren faktoreei buruzko informazioa izateko ekintzak garatzea.
 - Aurrera egin da Prebentzioko Zerbitzuen Gutxieneko Datu Multzoan oinarritutako lan-osasunari buruzko informazio-sistemaren ezarpenean.
 - Gaixotasun profesionalak jakinarazteko CEPROSS sistemarako sarbidea hobetzeko lan egin du OSALANek, Hitzarmen bat gauzatzeko Gizarte Segurantzako Antolamendu Zuzendaritza Orokorrekin bilerak eginez. Hitzarmenaren idazketa oso aurreratuta dago.
 - Finkatutako datuetan oinarrituz, EAEko ezbehar-tasari buruzko urteko txostena zein bestelako txosten bereziak (in itinereko lan-istripuak, errepidekoak,...) egin da.
- EAEko osasun-zerbitzuek eta Prebentzio Zerbitzuek lanak eragindako gaixotasunak



jakinarazteko sistema (Gaixotasun Profesionalaren Susmoaren sistema) hedatu eta finkatzea.

- Sistema jarraitzeko hiru kideko taldea sortu eta gauzatu da eta honako hauek osatzen dute: Osasun Silak, Osakidetzak eta Osalanek.
- Beste talde bat ere osatu da Osakidetzako mediku espezialistekin, arreta espezializatutik komunikazioak sustatzeko (ikus berariazko prestakuntzako ekintzak).
- Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin baterako aplikazio informatikoa ezartzeko bidean daude.

Lan horren eta aurreko urteetan egindakoaren ondorioz, nabarmen egin du gora GP susmoaren jakinarazpen-kopuruak, eta bereziki Osakidetzako fakultatiboen aldetik.

	Susmoaren jakinarazpenaren jatorria		
	Osakidetza	ZP	Guztira
2009. urtea	35	231	266
2010. urtea	58	895	953
2011. urtea	173	554	727
GUZTIRA	267	1.723	1.990

2012an arlo honetan lan egiten jarraituko da, arreta berezia Prebentzio Zerbitzuen osasun-langileei eskainiz.

- Euskadiko Osasun Publikoaren etorkizuneko Legearen barruan, EAEko osasun publikoaren zaintza-sisteman, laneko gaixotasunen zaintzarako azpi-sistema sortzearen eta azpi-sistema hori Zaintza Epidemiologikoko Sare Nazionalean txertatzearen alde egitea.

Arlo honetan jarduten du Osalanek traktore gisa, Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluaren Osasun Publikoko Batzordeko Laneko Osasuneko Lantaldean esku hartuz.



JI.12 – PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA

LSOEEK arlo honetarako ezarritako helburua da bertan diseinatutako jarduketak aurrera eramateaz arduratutako pertsonen inplikatu eta profesionaltasun, motibazio eta kalitatez lan egin behar dutela. Horretarako, beharrezko baliabideak, informazioa eta prestakuntza emango zaie, eta baita beren parte-hartzea eta autonomia sustatu eta beren garapen pertsonal bultzatu ere. Bere langileentzat ezarri du helburu hau Osalanek eta A.17 arloan garatu du.

2.17. PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA – (A.17)

Arlo honetako helburu zehatzak hiru alderditan banatu dira: bat, informazioa izatea eta hirugarrenei emateko erraztasuna, bi, pertsonen prestakuntza eta trebakuntza, eta hiru, lanaren egitura eta antolaketa. Ondoren zehazten dira horren inguruan burututako ekintzak.

- Segurtasun eta konfidentzialtasunaren irizpideak errespetatuz, Osalanek erabilitako dokumentaziorako sarbidea erraztuko duen dokumentuak kudeatu eta espedienteak artxibatzeke sistema diseinatu eta ezartzea.

Egindako lana Erakundearen barne-prozedurak berrikusi eta berrantolatzea zuzendu dira, langile guztiei sare korporatiboaren bitartez eguneratutako bertsioetarako sarbidea bermatzeko.

2012an, artxiboaren berrantolaketa eta digitalizatzeari ekingo zaie, Sistema Plana ezarri ondoren. Horrek, Eusko Jaurlaritzaren «dokusi» gordailuan dokumentuak artxibatzea dakar berarekin.

- OSALANek jasotako kontsultak kudeatzeko sistema integratu diseinatu eta ezartzea.

Garatutako jarduketek kontsulta telematikoen eta telefono bidezkoen arreta barne hartu dute.

- Lehenengoei dagokienez, LPZren aldaketa kudeatu da Web Gestorearen lanpostua sortzeko. Bere eginkizunetako bat bide elektronikoz jasotako kontsultak erantzutea da. Lanpostua beteta dago eta jarduteko prozedurak garatzen ari dira.
- Telefono bidezko kontsultei dagokienez, Zuzenean zerbitzuak artatzea bideragarria ez zela ulertu ondoren, 2 telefonista-lanpostu egokitzea erabaki da eta gutxi barru LPZ aldatzeko espedienteak izapidetuko da bi horiek sortzeko. 2012. urtean zehar zerbitzuaren jarduna eta jarduteko prozedurak diseinatzea aurreikusten da.

Ondorengo hauek dira Web bidez heldutako eta Osalanek artatutako kontsulten datuak:

WEB KONSULTAK	OSALANEN WEBA	SAILAREN WEBA
Jasotakoak	134	216
Erantzundakoak	134	208
Ebatzitakoak	106	208
Ebazteke	4	
Birzuzenduak	24	8

- OSALANeko langileen prestakuntza-beharrak identifikatu eta kudeatzea, LAPeko diziplina



ezberdinetan espezialistak sortzeko helburuarekin.

- Lehen urrats gisa, Osalaneko langileen prestakuntza-ekintzak bildu dira 2006. urtetik egunera arte eta datu-base bat prestatu da lanpostuak eta garatu beharreko eginkizunak elkartzeko.

2012an zehar barne prestakuntza-plana prestatzea eta garatzen hastea aurreikusita dago.

- Osalaneko langileek 2011n zehar jaso duen Prestakuntza espezializaziora eta adituak sortzera zuzendu da; hartara, adibidez, 2 Ergonomia Ikastaro, 2 Psikosoziologia Ikastaro, Industria Higieneko Ikastaro 1 eta Leku Itxiei buruzko Ikastaro 1 jaso dira, eta horrekin batera, Kudeaketa Planeko ekintzei lotutako prestakuntza, eta tartean, REACH inguruko Prestakuntza, etab.

- OSALANen egitura egokitzea 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia garatzeko:

Ekintza hori bi fasetan garatzea aurreikusten zen:

- Epe laburrera, lanaren barne-berrantolaketa, 2011rako Kudeaketa Planeko ekintzez arduratuko ziren Kudeaketan Laguntzeko Taldeak sortuz (KLT).
- Epe ertainera, organigrama eta LPZ aldatzeko berrikuspena eta proposamena.

Lehenengo fasea KLTak sortuz gauzatu da, eta horiek Kudeaketa Planetik esleitu zitzaizkien ekintzen diseinua eta jarraipena egin dute. Egindako balorazioak Taldeek funtzionamenduan dituzten ezberdintasunak erakusten ditu, emaitza orokorra ona izan arren. Horren ondorioz, antolaketa berari eutsiko zaio 2012rako Kudeaketa Planaren garapenerako.

Bigarren faseari dagokionez, Erakundearen egungo egitura berrikusi da, etorkizuneko Kudeaketa Planak garatzeko beharrak identifikatze aldera, organigrama berria diseinatu da eta aurrera egin da LPZ aldatzeko Eusko Jaurlaritzako Organo eskudunekin egin beharreko izapidetzean.



2.18. OSALANEN ERAKUNDE JARDUNA – (A.18)

2011rako Kudeaketa Planean A.18 gisa identifikatutako lan-arlo honetan, Osalan Sortzeko Legeak eta bere Egitura eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak esleitzen dizkion eginkizunak betetzeko Erakundeak garatzen dituen jarduketak barne hartzen dira. Ondorengo ataletan jaso dira egindako ekintzak eta garatutako jardueraren bolumena, zehaztu gabe:

- Lan-arloko Agintearen, Lan Ikuskaritzaren, Erakundeen, enpresen, prebentzioko erakundeen eta langileen kontsulta, salaketa eta errekerimenduak artatzea.

	SALAKETAK		ERREKERIMENDUAK	
	Jasotakoak	Erantzundakoak	Jasotakoak	Erantzundakoak
LEHEN SEKTOREA	-	-	-	-
INDUSTRIA	18	16	67	52
ERAIKUNTZA	1	1	185	170
ZERBITZUAK	-	-	10	8
HERRI ADMINISTRAZIOA	71	71	4	4
LANEKO OSASUNA	-	-	275	279
GUZTIRA	90	88	541	513

- Lan-istripu larri, oso larri, hilgarri eta anitz guztiak ikertu eta Lan- eta Justizia-arloko Agintaritzarentzat eta interesatuentzat dagozkion txostenak egitea.

EAEEn izandako istripuetatik (ikusitako Eranskina) ondorengoak ikertu dira:

	IKERTUTAKO ISTRIPUAK					
	Laneko Osasuna	Industria	Eraikuntza	Lehen sektorea	Zerbitzuak	Herri Administrazioa
Hilgarriak	21	6	6	-	3	-
Larriak/Oso larriak	2	51	25	2	28	5
Arinak	-	2	-	-	-	2
Askotarikoak	-	59	9	10	13	-

- Industriako, Zerbitzutako eta Lehen Sektoreko enpresen Lantokiak bisitatzea, ireki direla jakin denean.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
LEHEN SEKTOREA	-	-	-
INDUSTRIA	32	14	13
ZERBITZUAK	20	6	3
GUZTIRA	52	20	16



- OSALANen Higiene Laborategiko jarduera garatzea.

Egindako txosten kop.	306
Zehaztapen kop.	3019
Eguneratutako prozedurak	6
Egindako prozedurak	2

- Osasun-baimena eta Prebentzio Zerbitzuen kontrola. (*)

OSASUN INSTALAZIOKO BAIMENA	125 TXOSTEN
IKUSKAPENA ETA KONTROLA	116 JARDUKETA
EBAZPENAK	116 EMAN DIRA
ZIGOR ESPEDIENTEAK	8 ABIARAZI DIRA

(*) Araba eta Bizkaiko datuak; Gipuzkoako falta dira.

- Argitalpenak prestatu eta plazaratzea.

201KO KP BARRUAN PLAZARATUTAKO EDO OSALANEK ESKU HARTUTAKO ARGIALPENAK

ARGITALPENA	Editorea	Data
Prebentzioko Ordezkarientzako Laneko Arriskuen Prebentzioko Oinarrizko Ikastaroa	OSALAN	2011ko urtarrila
Lanean agente kimikoen eraginpean egoteko mugak	LSHIN	2011ko urtarrila
EAEen lanari egotz dakioken gaixotasun-zama eta dagokion osasun-kostua.	OSALAN	2011ko maiatza
Prebentzioko Baliabidearen Eskuliburua.	OSALAN	2011ko maiatza
EAEko Laneko Segurtasun eta osasunaren Estrategia	OSALAN	2011ko maiatza
Osalanen 2011rako Kudeaketa Plana.	OSALAN	2011ko maiatza
Arrantza Sektoreko Osasunaren Zaintzari buruzko Gidaliburua.	OSALAN	2011ko urria
Lantaldeak. Lan-ekipoak erabiltzearen inguruko arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa (ARGITARALDI BERRIA)	LSHIN	2011ko azaroa
Berariazko Osasunaren Zaintzako protokoloak: Zarata eta Silikosisia.	OSALAN	2012ko urtarrila



3. BALIABIDEAK

Osalanek 2011ko Kudeaketa Plana garatzeko erabilitako baliabideak ekitaldiaren hasieran planifikatutakoak dira, eta ondoren zehazten dira.

3.1. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Ondorengo kapituluaren arabera xehakatu da Osalanek 2011ko ekitaldian bere jardura garatzeko izan duen gastu eta sarreren aurrekontua:

GASTUAK

I. Kapitula	Langileen gastuak	9.868.714.-
II. Kapitula	Funtzionamenduko gastuak	4.444.129.-
III. Kapitula	Gastu finantzarioak	225.-
IV. Kapitula	Gastu arruntetarako transf. eta diru-lag.	3.044.785.-
V. Kapitula	Egiazko inbertsioak	1.102.773.-
VII. Kapitula	Kapitalaren eragiketarako transf. eta diru-lag.	726.762.-
VIII. Kapitula	Finantza-aktiboen gehikuntza:	30.000.-

	GUZTIRA	19.217.388.-

SARRERAK


III. Kapitula	Salmenta eta zerbitzuak ematea	35.000.-
IV. Kapitula	Transferentzia arruntak	14.038.500.-
V. Kapitula	Ondare-sarrerak	1.500.-
VIII. Kapitula	Finantza-aktiboen gutxitzea	5.141.888.-

	GUZTIRA	19.217.388.-

3.2. GIZA BALIABIDEAK

Osalanek 2011ko Kudeaketa Plana garatzeko bideratutako giza baliabideak, Erakundeari atxikitako langile guztiak dira.

Osalanek 181 langile ditu, Zerbitzu Nagusietan eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiru Lurralde Zentroetan banatuta eta ondorengo organigramaren arabera egituratuta:



Ondorengoa da jarduketa-eremuen arabera banaketa: 23 pertsonak osasunaren zaintzarako arloan lan egiten dute, 79 eremu teknikoko arloko unitateetan eta 79 administrazio, kudeaketa eta giza baliabideen arloetan.

2011ko Kudeaketa Plana garatzeko, Kudeaketan Laguntzeko 10 Talde eratu ziren, bakoitza pertsona gutxiz osatuta eta dagozkien Koordinatzaileez. Azken horiei ekintzak diseinatu eta jarraitzeko erantzukizuna esleitu zitzaion. Lan-antolaketa aurrera doa, jada, Erakundearen langile tekniko eta medikoen espezializazioan, eta Segurtasun, Higiene, Ergonomia eta Psikosoziologiako 4 talde sortu dira diziplina horietako ekimenak gara ditzaten.



4. 2011KO KP-AREN GARAPENARI BURUZKO BALORAZIO OROKORRA

Planeko ekintza bakoitzaren betetze-mailari eta horien emaitzei buruz emandako informazioaren osagarri gisa, Osalanen 2011rako Kudeaketa Planaren garapenari eta ezarritako helburuak lortzeko izan duen eraginari buruzko multzoaren ebaluazioa egin daiteke. Halaber, planifikatutakoan izan diren desbideratze nagusiak identifikatu eta horien arrazoiak ezarri behar dira, 2012rako Kudeaketa Planaren eta ondorengo diseinuan beharrezko alderdiak zuzendu ahal izateko.

Kudeaketa Planaren garapenaren balantze orokorra ona da. Irismen handiko Plana izan arren, eta esparru ezberdinetan jarduketa ugari eduki eta burutzean hirugarrenekin menpekotasun eta elkarreragin handia baditu ere, oso portzentaje altuan gauzatu dela eta jarduketek jomuga zituzten eremuetan ondorio egokiak izan dituela uler daiteke.

Laneko Segurtasun eta Osasunaren alderdiak hedatu eta zabaltzeko egindako ahalegin handia nabarmendu behar da, hein handi edo txikiagoan kolektibo guztiengana heldu baita, bide ezberdinak erabiliz eta bakoitzarentzat ad-hoc mezuak eskainiz. Oraindik neurtu gabe egon arren, izan ere, ekintza horiek epe laburrera ez dituzte emaitza ikusgarriak izaten eta denbora iragandakoan egingo baitugu ebaluazioa, espero daiteke horrelako lanak emaitza izatea gure gizartearen LAP inguruko kulturaren hazkundera.

Beste alderdi garrantzitsu bat Osalanek ETEetan duen presentzia nabarmena eta, berezi-bereziki, LAPerako arazotsuak eta ez oso aldekoak diren nekazaritza eta basogintza eta arrantza bezalako sektoreetan. Bisitatutako lantokien kopuruari buruzko datuek, garatutako landa-lan handia erakusten dute.

Sektoreak	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Lehen sektorea	19	15	29	63
Eraikuntza	1819	2385	925	5129
Industria	704	632	556	1892
Zerbitzuak	738	572	121	
Guztira	3280	3604	1631	8515

Osasun eta Kontsumo Sailarekin eta Osakidetzarekin harremanak eta lankidetzak areagotu dira, erakunde biak ezinbesteko laguntzaileak baitira Osalanen osasun-arloko ekimenetan, eta LAPeko eragile ezberdinekiko kontaktu ugari eta emankorrak izan dira, bereziki, gizarte-eragileekin eta espezializatutako Erakundeekin.

Horiek izan daitezke alderdi nabariak, 2011ko KP barruan lortutakoari dagokionez, bakarrak ez izan arren. Lortu ez denari edo plangintzaren arabera atzeratu edo irten ez denari dagokionez, disfuntzio horien eragileen azterketa sakonago batek hainbat ondorioetara garamatza, eta horiek etorkizunera begira hobetzeko balioko digute. Hartara, ondorio nagusia da diseinua errealismoz eta ekintzen nondik norakoa arreta handiz egin behar ditugula, gauzatzeko nahikoa baliabide izateko.



ERANSKINA: EAE-KO EZBEHAR TASAREN DATUAK

A.1 LAN ISTRIPUAK

LI BAJAREKIN	2010EKO ABENDUA	2011KO ABENDUA	ALDEA %ETAN
LI Lanaldian	34.109	30.628	-%10,21
LI In Itinere	4.002	3.384	-%15,44
GUZTIRA	38.111	34.012	-%10,76

LI Lurralde Historikoka	2010EKO ABENDUA	2011KO ABENDUA	ALDEA %ETAN
ARABA	7.277	6.298	-%13,45
GIPUZKOA	11.489	10.348	-%9,93
BIZKAIA	19.345	17.366	-%10,23
GUZTIRA	38.111	34.012	-%10,76

LI SEKTOREKA (lanaldian)	2010EKO ABENDUA	2011KO ABENDUA	ALDEA %ETAN
LEHEN SEKTOREA	667	665	-%0,30
INDUSTRIA	12.455	11.460	-%7,99
ERAIKUNTZA	5.770	4.379	-%24,11
ZERBITZUAK	15.217	14.124	-%7,18
GUZTIRA	34.109	30.628	-%10,21

LI BAJAREKIN eta gabe	2010EKO ABENDUA	2011KO ABENDUA	ALDEA %ETAN
Guztira bajarekin lanaldian	34.109	30.628	-%10,21
Guztira bajarekin in itinere	4.002	3.384	-%15,44
Guztira bajarik gabe	50.328	47.137	-%6,34
GUZTIRA	88.439	81.149	-%8,24

PILATUTAKO INTZIDENTZIA INDIZEA SEKTOREKA	2010EKO ABENDUA	2011KO ABENDUA
LEHEN SEKTOREA	62,09	65,53
INDUSTRIA	72,30	67,82
ERAIKUNTZA	107,97	90,70
ZERBITZUAK	30,27	27,69
GUZTIRA	45,68	41,02

Oharra: Gobernuaren Ordezkaritzak emandako Gizarte Segurantzako afiliazio-datuetaik hartu da indizeak kalkulatzeko langile-kopurua.



A.2 GAIXOTASUN PROFESIONALAK

2011n CEPROSSen jakinarazitako Gaixotasun Profesionalaren datuak

LURRALDEA	BAJAREKIN	BAJARIK GABE	GUZTIRA
Araba	136	324	460
Bizkaia	426	670	1.096
Gipuzkoa	465	1.002	1.467
EAE:	1.027	1.996	3.023

